



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## MERKATU BATASUNA BERMATZEKO LEGE AURREPROIEKTUAREN INGURUAN LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAK EGINDAKO TXOSTENA

**Esp.: I-2/2013**

### Aurkibidea

I.- TXOSTENAREN XEDEA .....	1
II.- OINARRI JURIDIKOA ETA LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN ESKU-HARTZEAREN HELMENA .....	2
III.- LEGERIA.....	2
IV. LEGE AURREPROIEKTUAREN EGITURA .....	3
IV.- LEGE AURREPROIEKTUAREN ZIRRIBORROAREN HELBURU ARAUTZAILEA .....	5
V. MERKATU BATASUNA BERMATZEKO LEGE AURREPROIEKTUAREN ZIRRIBORROA...	6
VII. ONDORIOAK .....	12

### **Lehiaren Euskal Kontseilua**

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, lehendakaria

Natividad Goñi Urriza andrea, kidea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, kidea

Ibon Álvarez Casado jauna, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak, goian adierazitako osaerarekin, honako txosten hau onartu du.

### **I.- TXOSTENAREN XEDEA**

**1.** 2013ko urtarrilaren 25ean, Ministroen Kontseiluak merkatu-batasuna bermatzeko lege-aurreproiektua onartu zuen.



2. Txosten honen bidez, Lehiaren Euskal Kontseiluak aipatutako lege-aurreproiektua lehiaren arauekin bateragarria den aztertu du.

## II.- OINARRI JURIDIKOA ETA LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN ESKU-HARTZEAREN HELMENA

3. Oro har, aipatzekoa da *lehia defendatzeko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko* 25. artikulua aholku emateko eskumenak ematen dizkiola Lehiaren Batzorde Nazionalari, zera baitio: «Lehiaren Batzorde Nazionala organo aholku-emailea izango da lehia defendatzearekin zerikusia duten arloetan (...). Kasu guztietan, Lehiaren Batzorde Nazionalak ondorengoei buruzko irizpenak emango ditu: a) Lehiaren inguruko arau-proiektuak eta -proposamenak (...)».

4. Bestalde, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko 1/2012 Legearen 3. artikulua bosgarren lerrokan ezarritakoaren arabera, Lehiaren Euskal Agintaritzak irizpena emango du, izaera ez loteslearekin, lehiari eragiten dioten arau-proiektuen inguruan.

5. Araudi horri jarraikiz, Lehiaren Euskal Kontseiluak aipatutako lege-aurreproiektua aztertzeari ekin dio, lehia defendatzeko araua oinarri hartuta.

## III.- LEGERIA

6. Honako hau da azaldutako kasuari aplikatu beharreko erregulazioa, ordena kronologikoari jarraituta:

- *Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legea.*
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa.
- 15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia defendatzekoa.
- 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzkoa.
- 25/2009 Legea, abenduaren 22koa, zenbait lege aldatzen dituen zerbitzu-jarduerak askatasunez eskuratzeko eta egikaritzeko Legea egokitzeko.
- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onesten duena.



- 1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa.
- 7/2012 Legea, apirilaren 23koa, barne-merkatuko zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitze aldera zenbait lege aldatzekoa.

#### **IV. LEGE AURREPROIEKTUAREN EGITURA**

7. Lege-aurreproiektuak hogeita zazpi artikulua ditu, zazpi kapitulutan, zortzi xedapen gehigarritan, xedapen indargabetzaile batean, sei azken xedapenetan eta eranskin batean bildutakoak.

I. kapituluak helburua eta aplikazio-esparrua arautzen dituzten xedapen orokorrak ezartzen ditu.

Aplikazio-esparrua zehaztean, arauak jarduera ekonomikoetarako sarbidea eta gauzatzea merkatu-baldintzen arabera erregulatuko duela ezartzen da; ondorioz, jarduera ekonomikoetarako sarbideari eta gauzatzeari eragiten dioten herri-administrazioetako egintza eta xedapen guztiak arautuko ditu. Era berean, merkatu-batasunaren oinarri gisa Espainia osoan ondasun eta zerbitzuen zirkulazio askea ezartzen du .

II. kapituluak merkatu-batasuna bermatzeko beharrezkoak diren ezarpen-askatasuna eta ondasunen zirkulazio-askatasuna bermatzeko printzipioak ezartzen ditu: A) Bizilekua edo ezarpenlekua dela-eta ez diskriminatzeko printzipioa, B) Agintaritzza eskudunen artean lankidetzan aritzeko eta beren jarduketetan elkarrenganako konfiantza izateko printzipioa, C) Agintaritzza eskudunen jarduketan premiaren eta proportzionaltasunaren printzipioa jarduera ekonomikoetan sartzeko eta aritzeko mugak eta baldintzak ezartzeko orduan; muga eta baldintza horiek ezartzeko, beharrezkoa izango da interes orokorreko arrazoi bat bermatzeko premia izatea, 17/2009 Legearen 3.11 artikuluari jarraiki; D) Agintaritzza eskudunen jarduketak Espainia osoan eraginkorrak izateko printzipioa, E) Agintaritzza eskudun bat baino gehiagoren esku-hartzean kargak sinplifikatzeko printzipioa, F) Agintaritzza eskudunen xedapenen eta egintzen gardentasun-printzipioa, eta,



azkenik, G) Printzipio hauek aplikatzean operadore ekonomikoen askatasunak bermatzeko printzipioa.

III. kapituluak herri-administrazioen arteko lankidetzak bermatzeko mekanismoak sortu nahi ditu. Hartara, Merkatu Batasunerako Kontseilua sortzen du. Idazkaritza tekniko batek emango dio laguntza, eta legearen aplikazioa jarraitzeko eta bultzatzeko administrazio-lankidetzarako organo gisa jardungo du.

IV. kapituluak ezarpen- eta zirkulazio-askatasunaren bermeak ditu mintzagai. Ekimen ekonomiko askearen printzipiotik abiatuta, premia- eta proportzionaltasun-printzipioaren antolaketa arautzen du, baimen, erantzukizunpeko adierazpen eta komunikazioko araubideak eska daitezkeen kasuak aintzat hartuta.

V. kapituluak lurralde osoko eraginkortasunaren printzipioa garatzen du; legearen funtsezko elementuetako bat da. Elkarrenganako konfiantzan oinarrituta dagoen printzipio horren arabera, lege ezarritako edozein operadore edo lege ekoitzi eta zirkulazioan jarritako edozein ondasun lurralde osoan jarduera ekonomikoan aritu ahal izango da edo zirkulatu ahal izango du, eta printzipioz, beste agintaritza eskudunek ezingo diote baimen berririk edo izapide gehigarririk eskatu.

VI. kapituluak jarduera ekonomikoaren sarbidea eta gauzatzea gainbegiratu eta kontrolatzeko agintaritza eskudunak arautzen ditu.

VII. kapituluak operadore ekonomikoak babesteko mekanismoak arautzen ditu ezarpen-askatasunaren eta zirkulazio-askatasunaren esparruan. Merkatu-batasuna lortzeko operadoreek hautemandako oztopoak eta hesiak gainditzeko konponbide erraza ematea bilatzen du. Jarduketa publikoak merkatu-batasunak ordezkatzeko duen interes orokorra urratu dezakeen kasuetan, interesdunak, egokia dela iritziz gero, baliabideak banatzeko sistema edo aipatutako ordezkari sistema erabil ditzake.

Xedapen gehigarriek legean ezarritakoa aplikatzeko eta bultzatzeko beharrezko alderdi gehigarriak arautzen dituzte.

Xedapen indargabetzaileek, bai eta azken xedapenetako lehenengoak eta bigarrenak ere, aldaketak eta indargabetzeak



egiten dituzte arau hau indarrean jartzearen ondoriozko eraginak izango dituzten lege mailako arauetan, zehazki, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzeko 29/1998 Legean.

#### **IV.- LEGE AURREPROIEKTUAREN ZIRRIBORROAREN HELBURU ARAUTZAILEA**

**8.** Jarraian azaltzen dira, laburtuta, bere helburua justifikatzeko lege-aurreproiektuak erabiltzen dituen oinarriak.

Helburu nagusia merkatu-batasunaren printzipioa gauzatzeko beharrezko xedapenak ezartzea da. «Zehazki, ordena ekonomikoaren osotasuna bermatzea eta merkatuko eskala- eta hedadura-ekonomiak baliatzea erraztea du helburu, jarduera ekonomikoetan aske sartu, aritu eta horiek hedatzearen bidez, betiere behar bezala gainbegiratzen direla bermatuta, EEren 139. artikulua betez».

Era berean, azken urteotan, merkatu-batasunaren printzipioa gauzatzeko arau-aldaketak ezarri direla planteatzen da; «hala ere, merkatua zatikatuta dago, eta horrek enpresen jarduera nabarmen zailtzen duen kostu handia eragiten du». Kostu hori eta erregulazioa areagotzeak eragindako oztupoak eta trabak ezabatzeko beharra izan da operadore ekonomikoek azken urteotan egin dituzten eskaera nagusietako bat. Eta zioen azalpenak horixe gogoratzen du.

Arauk dioenez, estatuko lurraldeetako arau-aniztasunaren ondoriozko merkatuaren zatikatzeak lehia eraginkorra zailtzen du, eta eskalako ekonomiak baliatzea eragozten; horrek inbertsioa moteltzen du, eta, azken batean, produktibitatea, lehiakortasuna, hazkunde ekonomikoa eta enplegua murrizten ditu. Proposatutako arauak ekintzailtza, enpresen hedapena, jarduera ekonomikoa eta inbertsioa sustatzeko ingurune ekonomikoa eta arautzailea ezartzeko helburuaren elementu nagusia izan nahi du.

Zioen azalpenarekin jarraituz, legearen xedea merkatu-batasuna bermatuko duten printzipioak eta oinarriko arauak ezartzea da,



lehia eta inbertsioa nabarmen hobetuko dituen ingurunea eratu ahal izateko, betiere autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundeen eskumenak erabat errespetatuta; era horretan, eragile ekonomikoek produktibitate handiagoa eta kostu txikiagoak izatea erraztuko litzateke, enplegua eta hazkundera sortzeko helburuarekin, eta, azalpenak dioenari jarraiki, azken onuradun gisa kontsumitzaile eta erabiltzaileak izanda.

Era berean, arau-proposamenak gogoratzen du herri-administrazio guztiek legeak bildutako printzipioei men egingo dietela, beren egintza eta xedapen guztietan, eta beren jarduera ekonomiko guztietarako.

Azkenik, zioen azalpenak adierazten duenaren arabera, lege-aurreproiektua egiteko, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Zuzentarauaren (Zerbitzuen Zuzentaraua, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa) transposizioa egiteko prozesuan bildutako esperientzia kontuan hartu da. Prozesu horretan, zirkulazio askerako zenbait oinarrizko printzipio txertatu ziren antolamendu juridikoan, bereziki administrazioen esku-hartzeko bitartekoen nazio mailako eraginkortasunaren printzipioa, zerbitzu-jardueretarako sarbide askeari eta haien gauzatzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen bidez.

## **V. MERKATU BATASUNA BERMATZEKO LEGE AURREPROIEKTUAREN ZIRRIBORROA**

**9.** Aztergai dugun lege-aurreproiektua ikertu aurreko gogoeta gisa, Lehiaren Euskal Agintaritzak balorazio positibo bat planteatu nahi du.

Azterketa honen sarreran adierazi bezala, erregulazioaren helburu arautzailea eta horrekin lortu nahi den xedea merkatuan oztupoak ezabatzerantz bideratuta daude zuzen-zuzenean. Aurreproiektuak operadore ekonomikoen merkatuko sarbidean zein operadore horien jardueraren gauzatzeari biltzen du arreta, bai eta ondasunen zirkulazio askean ere.



Helburu horrek operadore ekonomikoek merkatuetan aritzean dituzten lehia-baldintzak nabarmen hobetzen dituen testuinguru eratzten du.

Merkatu-batasuna izango den testuinguruaren ezarpena, bai eta testuinguru hori konplexutasunik gabe lortzeko mekanismo administratibo eta judizialena ere, oinarritzen duten printzipioek lehia-baldintzak hobetzen dituzte merkatuetan.

Horregatik, Lehiaren Euskal Agintaritzak positiboki jotzen ditu araudiak oinarri hartzen dituen printzipioak eta balioak.

**10.** Aurrekoa gorabehera, Lehiaren Euskal Agintaritzak manu zehatzei buruzko hurrengo ohar juridikoak egin behar ditu, eta aldaketak edo zehaztapenak proposatzen ditu horien inguruan.

**11.** Lehenik eta behin, 4. artikuluari erreferentzia egingo diogu, **Lankidetzaren eta elkarrenganako konfiantzaren printzipioa** izena duena.

Manu horrek agintaritza eskudunen arteko harremanen oinarrizko araua biltzen du, erregulazioa uniformeki aplikatzeko eta operadore ekonomikoak behar bezala gainbegiratzeko lankidetzan aritzea bilatzen duena. Bere oinarriak agintaritzen arteko elkarrenganako konfiantza eta beren eskumenak legez gauzatzeko errespetua dira.

Aurreko esperientziak aintzat hartuta (adibidez, Lehiaren Batzorde Nazionalaren esku-hartze sistematikoak agintaritza autonomikoek gauzatutako prozeduretan), Lehiaren Euskal Agintaritzaren ustez, garrantzitsua da azpimarratzea harremanok berdintasun-baldintzetan egin behar direla, inolako asimetriarik gabe herri-administrazioen arteko harremanetan. Izan ere, administrazio barruko harremanen esparruan, aurreproiektu honetan ezarritako lankidetzaren eta elkarrenganako konfiantzaren printzipio espezifikoen gainetik egongo dira azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, dagoeneko ezartzen dituen printzipio orokorrak, erakundeen arteko leialtasunaren oinarrizko printzipioa ardatz dutenak.



Lankidetzaren eta elkarrenganako konfiantzaren printzipioak merkatu-batasuna benetan lortzeko erakundeen arteko leialtasunaren oinarritzko printzipioaren *ad casum* zehaztapena baino ez dira; batasun hura edukirik gabe geldituko litzateke gauzatzea berdintasun-baldintzetan eta legean ezarritako printzipioak zorrotz aplikatuta egiten dela bermatzen ez bada.

**12.** 10. artikulua bigarren lerroak **Merkatu Batasunerako Kontseiluaren** osaera arautzen du. Ogasun eta Herri Administrazio ministroa izango du buru, eta honako hauek parte hartuko dute: Herri Administrazioen estatu-idazkaria, Ekonomia eta Enpresak Babesteko estatu-idazkaria, Presidentetzako idazkariordea eta gaiaren arabera eskudun diren kontseilariak.

Merkatu Batasunerako Kontseiluaren osaerari dagokionez, Lehiaren Euskal Agintaritzak uste du komenigarria izango litzatekeela zehaztea zeintzuk diren «...*gaiaren arabera eskudun diren kontseilariak*».

Harrigarria da autonomia-erkidegoei erreferentziarik ez egitea, kontuan hartuta aurreproiektuaren zenbait artikuluk berriaz aipatzen dituztela, eta, era berean, harrigarria izan daiteke ere kontseilu horretan, kide kopuruari dagokionez hain desberdintasun handia egotea estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean.

Horregatik, segurtasun juridikoaren printzipioa ahal adina errespetatzen dela bermatzeko, komenigarria litzateke ahalik eta zehatzen definitzea zeintzuk izango diren kontseilua osatuko duten berezko kideak, zer herri-administrazioak diren, eta estatuaren eta autonomia-erkidegoen arteko parekotasuna, gutxienez, bermatzea.

Bestalde, ez zaie erreferentziarik egiten tokiko erakundeetako ordezkariari, eta horiek ere protagonismo handia dute etorkizuneko legea gauzatzeko eta bere helburuak benetan erdiesteko lanean.

Puntu horretan, beste alderdi garrantzitsu bat nabarmendu nahi dugu. Gure ustez, organo horretan aurrerago garatuko den erabakiak hartzeko eta hitzarmenak lortzeko prozedurari





dagokionez, aipatu beharko litzateke berdintasun-printzipioarekiko errespetua bermatuko dela.

**13. Arau-proiektuak egiteko lankidetzari buruzko** 14. artikulua bigarren lerrokadak jakinarazteko betebeharra ezartzen du merkatu-batasunari modu nabarmenean eragiten dioten arauak egiteko prozeduretan. Horren arabera, araua proposatzen duen agintaritza eskudunak gainerako agintaritzen esku jarriko du horren testua, sistema informatikoaren bidez eta nahikoa aurrerapenarekin. Testuarekin batera, araua egoki baloratzeko txostenak edo dokumentuak jarriko ditu, bai eta, hala badagokio, arauaren eragina aztertzen duen memoria ere.

Horrekin lotuta, komenigarria litzateke zehaztea arauaren garapenaren zein fasetan jarri behar duen agintaritza proposatzaileak testu hura eskuragarri gainerako agintaritzentzat (23. artikuluan aurreikusitako sistema informatikoaren bidez). Bestela, manuak erdietsi nahi duen helburua desitxuratzeko aukera egongo litzateke, prozedurarekin soilik lotutako alderdiak tartean direla.

**14.** 14. artikulua laugarren lerrokadak arau batek «esku hartzeko bitartekoak» ezarri edo aldatzen dituen egoera du mintzagai. Segurtasun juridiko handiagoa lortze aldera zehaztu edo definitu beharreko lehenengo alderdia «esku hartzeko bitartekoen» kontzeptua bera da. Gainerako definizioak barne hartzen dituen eranskinean kategoria gisa txertatu ahalko litzateke.

Bigarrenez, manuak xedatutakoarekin bat, arau batek esku hartzeko bitartekoak aldatzen dituenean, jarduera horri eragiten dioten beste neurririk dagoen «aztertuko da». Era berean, hauxe ezartzen da: hainbat administrazio tartean diren kasuetan, esku hartzeko bitartekoak alderdi berberei eragiten ez dietela «bermatuko da». Kasu horietan, segurtasun juridikoa dela-eta komenigarria litzateke azaltzea zeinek egin behar duen aipatu balorazioa. Zehaztu ezean, agintaritza eskuduna deitutakoak edo tartean dauden bestelako



entitateek egin ahal izango lukete, eta hala badagokio, emaitzak desberdinak izateko aukera egongo litzateke.

**15.** 14. artikulua bosgarren lerrokadan aipatzen denez, jarduera ekonomiko batean sartzeko edo aritzeko baldintzen sendotasun-azterketa egin behar da, bestelako agintaritza eskudunen gainerako araudiekin bat datozen ikusteko. Sendotasun-azterketa baino, jarduera ekonomiko batean sartzeko edo aritzeko baldintzak gainerako araudiekin koherenteak diren edo bat datozen zehazteko azterketa izan zitekeen.

**16.** 18. artikuluari dagokionez, azpimarratu behar dugu Lehiaren Euskal Agintaritzak oso positiboki baloratzen duela. Izan ere, ezarpen askea eta zirkulazio askea mugatzen dituzten betebeharren zerrenda oso positiboa da, operadoreentzat eta herri-administrazioentzat argigarria baita. Jarduketa horrek, zalantzarik gabe, lehia areagotzen du.

Alderdi formal huts gisa, 18. artikulua zerrendaketan, e) lerrokadari dagokion idatz-zatia falta da.

**17.** 24. artikulua ikuskaritza-funtzioen gauzatzean egin daitekeen informazio-trukea aipatzen du.

Horren zenbait puntutan informazio-eskaerak edo errekerimenduak biltzen dira (1. lerrokada, eta 2. lerrokada, a) eta b). Guztietan, Lehiaren Euskal Agintaritzak beharrezkotzat jotzen du eskaera arrazoitua izatea, bai eta erantzuna arrazoitua ere.

**18.** 26. artikuluan operadore ekonomikoen interesen defentsa agintaritza eskudunen aldetik jorratzen da.

Manuak, itxuraz, sistema zentralizatua sortzen du Merkatu Batasunerako Kontseiluaren Idazkaritzan. Horren funtzioa operadoreen erreklamazioak jasotzeko eginkizunean leihatila bakar gisa aritzea izango litzateke. Dirudienez, agintaritza eskudunek ebatziko dituzte erreklamazioak, eta «harreman-puntuak» sortzen dira, bi zeregin dituztenak. Alde batetik, idazkaritzaren eta



agintaritza eskudunen arteko bitartekaritza-lana egingo dute, eta, bestetik, egindako erreklamazioaren inguruko «ekarpenak egiteko» ahalmena izango dute.

Manuaren idazketa argitu beharko litzatekeela uste dugu (hobeto ulertuko litzateke lerrokaden ordena 1.3.2.4.5 izango balitz), baina, horretaz aparte, gure ustez garrantzitsuak diren funtsezko kontsiderazio batzuk daude.

Lehenik eta behin, zentzuzkoa izango litzateke erreklamazio guztiak Kontseiluko Idazkaritzan aurkeztu beharrian, beren jardueratik gertuago dauden bulegoetan aurkezteko aukera izatea operadoreek, adibidez, harreman-puntuetan.

Harreman-puntuen sare-funtzionamendua dela-eta (idazkaritza horien parte da), sistema horrek ez luke zertan zalantzan jarri araudiaren aplikazio uniformeoa.

Bigarrenez, planteatzen den alderdi nabarmenetako bat «harreman-puntuen» zerrenda jasotzen duen 26.2 artikulua erregulazioan dago. Garrantzitsua da bai eskumenen ikuspegitik hertsiki, bai autonomia-erkidegoen eta estatuaren arteko harremanen ikuspegitik.

Kontuan hartuta «harreman-puntuek» planteatutako erreklamazioen inguruko funtzio aholku-emailea dutela, beharrezkotzat jotzen da nortasun juridikoa duten lehia-agintaritza autonomikoak harreman-puntu gisa hartzea dagozkien autonomia-erkidegoetan.

Horren bidez, eraginpeko autonomia-erkidegoen eskumen-autonomia errespetatuko litzateke, eta herritarrek eta enpresek merkatu-batasunaren eta hura oztopatzen edo zailtzen duten trabak ezabatuko dituzten zaintzaile eta babesle gisa hartuko lituzkete lehia-agintaritza horiek guztiak.

**19.** Antzeko zerbait gertatzen da aurreproiektuaren 27. artikuluaekin, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren legezkotasunaren ingurukoa. Azken xedapenetako lehenean erreferentzia egiten zaio, eta Administrazioarekiko Auzien



Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aldaketa bat aurreikusten du.

Gure ustez, beharrezkoa da nortasun juridiko propioa duten lehia-agintaritzza autonomikoek esleituta izatea ere administrazioarekiko auzi-errekurtsoak aurkezteko legitimotasun aktiboa, merkatu-batasunaren kontrakoa dela irizten zaion eta euren autonomia-erkidegoari eragiten dion edozein xedapen, egintza, jarduketa, ez-egite edo egitate-bideen aurka.

Hala, eskumenen araudiari eta banaketari jarraiki, lehia-agintaritzza guztiei –estatu zein autonomia mailakoei– egokituko zaie merkatu-batasuna eragozten duten oztopoak ezabatzea.

**20.** Bosgarren xedapen gehigarriak herri-ekintza administratiboa du hizpide.

Merkatu-batasuna defendatzeko ekintza publiko bat da, herri-administrazioaren zein justizia-auzitegien aurrean egiten dena. Zentzu horretan, adierazi behar dugu ez dela administrazio-ekintza bat soil-soilik, ekintza horren bidez zuzenean justizia-auzitegietara jo baitaiteke, besterik ezean, merkatu-batasunaren printzipioa gauzatzeko. Horregatik, manuan emandako izendapena aldatu eta «ekintza publikoa» jartzea gomendatzen dugu.

## VII. ONDORIOAK

**LEHENENGOA:** Merkatu-batasuna bermatzeko lege-aurreproiektu honen helburu arautzailea eta horren bidez lortu nahi den xedea merkatuan oztopoak ezabatzea zuzen-zuzenean bideratuta daude. Operadore ekonomikoek merkatu horretara sartzeko eta jarduera horretan aritzeko dituzten oztopoak dira, bai eta ondasunen zirkulazio askearekin lotutakoak ere, eta horiek ezabatzearen bidez, operadore ekonomikoek merkatuetan aritzean dituzten lehia-baldintzak hobetuko dira.

**BIGARRENA:** Lehiaren Euskal Kontseiluak txosten honetan egindako oharrak lege-aurreproiektuan zehaztea gomendatzen du.



Bilbon, 2013ko otsailaren 12an

**LEHENDAKARIA**  
**MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**IBON ALVAREZ CASADO**

**KIDEA**  
**NATIVIDAD GOÑI URRIZA**

**KIDEA**  
**RAFAEL ITURRIAGA NIEVA**